



Euskal Herria ezagutuz

AIARALDEA (ARABA)

Ur eta harrizko isiltasun hau

Itxi begiak. Entzungo dituzu lankidearen atzamarrak ordenagailuko teklak zanpatzen, tap-tap-tap-tap. Inprimagailu nekatuaren arrangura, grrri grrrii. Aparkalekutik atera ezin duen autoaren klaxon ernegatua, piiiii piiiii. Gose den alabaren mugimendu urduriak, ñiki-ñaka ñiki-ñaka. Zarata. Asotsa. Azantza. Orain, ireki berriro begiak... eta ongi etorri isiltasunera.

Testua eta argazkiak:

| MIKEL AYLLON |

Bertan behera utzitako errota, Beldandian.



“AIALAKO LURRA, etzara zu Bizkaia, etzara zu Gaztela, lepoan Orozko, sabelean Losa, zure burnaren gainean dago Bilbo, Bizkaiko itsaso hurbil dago, sei legoara, Bizkaiko itsaso bildurtua, Aialako lurra, lur odoldua, Luiando, Laudio, Lezama, Amurrio, Untza, jeografia txikia, historia luzea (...)”. Gabriel Aresti, garai batean, egunero etortzen zen trenez, tran-tran tran-tran, Bilbotik Laudioko Maderas enpresara lanera. Ez zen hemen denbora luzez egon, baina ematen du eskualdea eta bertako bizilagunak ezagutzeko aukera izan zuela. Hala erakusten dute bere poema luze batetik lapurtu ditugun goiko lerro horiek. Edo segidan datozen beste hauek: *“Hemen, konterri honetan, Aialako lurrian, Arrastaria, Izarra, Gordeliz, Llanteno, Lujó, Beotegi, Larrinbe, Delika, gizonak biltzen eta lapurtzen du, mesedez, ur lasterrak, leben garbiak, orain zikinak, eraman zazue itsasora lur honetan gizon urrikariak egiten duen hainbeste gaiztakeria...”*

Ezagun da ez ginela, nonbait, Arestiren gustukoak. Luzea izan daiteke, noski, gure bekatuen zerrenda, baina, akaso, hona hemen guztietan larriena: *“Kantabriako itsasora zoazten urak, Altube, Okendo, Nerbion, Aialako lurra, behin enskalduna, orain lur erdalduna, Urkabuztaizetik Laudiora, garbi ezazue, Orduña ere, Gernikari lotua, garbi ezazue Bizkaia Gaztelatik gordetzen duen lurra (...)”*.

Jakina denez, mailu bat da Arestiren poesia, eta aiaraldearrok buruan koskor mingarri bat dugula paseatzen gara gure harrizko Aiaraldea isil, umil, zikin eta zinez tragiko honetatik.

Denaren hasiera

Baina has gaitezen hasieratik. Jo dezagun gure buru-bihotzak garbitu behar dituen uraren sorlekura, Gorobel mendilerroaren magalean atsedean hartzen duen Delika herri ezkutura. Bertan hasiko dugu ausartentzako ibilbide hau, infernutik bertatik, *El Infierno* esaten dioten tabernaren ondoan. Urrats batzuk haratago lur azpitik sortzen den Nerbioi ibai jaioberriaren lehenengo negarrak ikusi ondoren, oinetakoak ondo estutu, motxila bizkarreratu eta Urduñako La Antiguako santutegira abiatuko gara, infernutik zerura. Bidean, Tertanga eta haren



La Antiguako santutegia (Eliza Zaharra), Urduñan.

uraska eta iturri berezia, haritzak, pagoak, lehenengo mahatsondoak, isiltasuna, tarteka isiltasuna urratzen duten behien zintzarriak klon-klon, zeru zabala, tarteka zerua urratzen duten parapenteak sigi-saga eta urduñarrei edaten ematen dien Gartxetako urtegia. Ur libre jaioberriarentzat lehenengo abisua.

La Antigua edo Eliza Zaharraren santutegia XVIII. mendeko tenplu barrokoa da, Urduñako armarría azalean tatuatua eta atsedean-gune eder bat atarian, zerua konkistatu nahi duten zuhaitzen gerizpean. Merezi du, merezi duenez, barrualdeari behako azkar bat ematea, haren handitasunaz jabetzeko. Baina hobe da Jainkoaren deiari entzungor egitea, ibiliari ekin behar-

ko baitiogu segituan. Bide luzea dugu aurretik.

Bide osoan babestuko gaituen Gorobel mendilerroa areago hurbiltzeko unea da. 25 kilometroko harrizko hesi erraldoi hau, Urduñatik Artziniegara, Txarrazotik Angulora, Euskal Herriaren eta Gaztelaren arteko muga naturala da, itxura dotore bezain ankerrekoa. Neguan besterik ez du amore ematen, munduan ia beste inon ikusi ezin daitekeen laino-opil izeneko laino-zirimolak mendeen hartzen duenean.

Lendoño goitira jo behar dugu errepidetik, eta horrek, noski, eguneko lehenengo aldapa gogorren aurrean jarriko gaitu. Esfortzuak, baina, saria dakar oraingoan, La Choza iturriaren zabalgunera iritsi



Ezkerrean, Sopeñako errege-bidearen Lendoñogoitik Agiñigarako tartea, Tologorri mendia atzean duela. Lerro hauen gainean, Agiñiga. Atzean ikusten den mendilerroa Gorobel da.

bezain laster ohartuko garenez. Zelai berde luzeak, mehatxuzko begiz so egiten diguten Bedarbide eta Solaiera mendiak, oraindik harri gutxi batzuk zut dituen Goiko Landetako trikuharria eta isiltasun pisua, haizeak firin-faran urratua.

Lendoñogoiti herrira heldutakoan, gorantz segituko dugu, Erdi Aroan merkataria eta saltzaileak erabiltzen zuten Sopeñako errege-biderra iristeko. Galtzada-harri zaharrak oraindik han-hemenka harro erakusten dituen bidetik aurrera, Maroñoraino GR284 mendi-bideari segitzea beste lanik ez dugu izango, beti Gorobelen arnas isila ezkerreko belarri ondoan fiu-fiuuuka dugula. Behin baino ez gara aterako une batez bidetik, Agiñiga herri ezinez dotoreagoa bisitatzeko. Gaztak famatu duen herrian –2014ko urriko azken asteleheneko Idiazabal gazten lehiaketako garailea Agiñiga–ko gazta bat izan zen–, hagin landatu berri batek egingo digu oles herriko plazan.

Berriro GR284ra bueltan, Madariarantz abiatu beharko dugu,

duko gara Maroñoko urtegira, mendilerroak babesten duen ur librean presondegi zital bezain ikusgarria.

Hogei kilometroko ibilaldiaren ondoren –mendiko bizikletaz ere erraz egin daiteke–, merezi dugu sikiera atsedena. Maroñoko inguru horretan ez da falta gozo afaldu eta lo egiteko landa-etxerik, itzulerari indar berriz ekiteko.

Bide osoan babestuko gaituen Gorobel mendilerroa 25 kilometroko harrizko hesi erraldoia da, Euskal Herriaren eta Gaztelaren arteko muga naturala

Itzultzea zer konplikatu den

Daitekeen gauzarik zailena omen da itzultzea, ez baita sekula posible hasierako leku berera joatea, beste ur bat baita orain ubide beretik datorrena. Eta gu ere, bideak zailduak, beste bat gara orain. Eta, hala

ere, sarritan, itzultzea beste erremediarik ez dugu –sikiera, Delikan utzi dugun autoaren bila–.

Errepidean behera aterako gara Maroñotik Belandiarako bidean, urtegira doan erreketako baten ubideari segika. Laster egingo dugu topo, errepidetik apur bat apartatuta, errota zahar abandonatu batekin, oraindik preso amaituko duela ez dakien uraren iragatearen lekuko mutu.

Belandia pasa, errepidetik portua igo, krix-krix zirtaka ari diren elektrizitate-zutoinek urratutako isiltasunean murgildu eta Lendoñobeitira jaitsiko gara abiada bizian, herri txiki baina zer ikusi ugariko honek erakarrira. Santutegia, eliza, baseliza, ur-presa txikia, errota, 700 urte zahar den dorretxea... Hankei atsedan apur bat eman eta erreko uraz eta bata bestearen gainean jarritako harriez gozatzeko parada bikaina izango dugu.

Errepidea atzean utzi eta Lendoñobeitiren gainaldetik Zedelikara eramango gaituen bidexka hartuko dugu orain. Zelaiz inguratuta, begien aurrean izango dugu begirada bakarrean geure egin ezingo dugun haran luze eta zabala. Eta klon-klon, fiu-fiu, firin-faran, zaunk-zaunk, marru-marru, beee...

Zedelikara iritsi aurretik, errepidera aterako gara berriro, eta jai-



Maroñoko urtegia. Atzean, Gorobel.

tsiera azkar baten ondoren, ia ohar-kabea, Eliza Zaharraren santutegiaren arboladia izango dugu begien bistan berriro. Aurreko egunean ibilitako bidea desagitea besterik ez zaigu geratuko orain, beste ia hogeik kilometroren ondoren, Delikaraino iritsi, oinetakoak deslotu eta orain beste ur bat dakarren erreka jaioberrian oin minduak hondoratzeko. Infernuaren ate aurrean, ur eta harrizko isiltasunari agur esateko unea iritsi da, orain betiko barruan eramango dugula ohartzeke.

Dagoeneko ez gara, zorionez, atzo ginen zarata eta harrabotsez beteriko pertsona gris haiek.

Bidaiari, itxi berriro begiak. Orain ikusten eta entzuten duzun guztia Aiaraldea da. Ongi etorri. "(...) askotan ikusi dut hemen, elizatik etxera, fabrikatik solara, tafernatik kalera, Aialako gizon gaiztoa, azkenean Jainkoak barkatuko duena...". Guk, bidaiari, Jainkoaren barkazioaren zain, bide bazterrean itxarongo zaitugu, harri baten gainean jarrita.

"Konterri honetan gizonak asko sufritzen du, lanean hari da gogorrik, apenas

etzaten da andrearekin, erregular irabazten du dirua fabrian eta gero soloan makurturik, prestuki bizi da hogeik urtean, eta azkenean aire gaizto batek jotzen dio burua eta aita zaharra edo alaba gaztea hiltzen du merke, baina luza-ro kario kopetako izerdiarekin mantendu ondoren". Igual, hobe bidean topo egiten ez badugu. ■



Bisitatua argia.eus/ihesi aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Animalia

(areto berria)

Natura ezagutu, errespetatu eta zaindu egin behar dugu

Eureka! Zientzia Museoan - 943 01 24 78 - eurekamuseoa.es - Donostia

eureka!
zientzia museo
kutxa FUNDATZIOA